



2017ko zezenketak

Novilladas 2017

Debako zezen ospakizunetan berrikuntza interesgarri bat izan genuen iaz, azpimarratzea merezi duena: lehenengo aldiz, San Roke jaietako zezenketetarako erositako zezenak zezen plazara atera ziren eta, handik, korrikalaririk gabeko entzierro txiki bat eginez, Osioko ukuiluetara eraman. Ikusmina handia izan zen; ikusle kopuru handia, bai plazan bertan baita entzierroaren ibilbidean ere.

Ezagutzen denaren arabera, zekor eta zezenak Nafarroatik Debara oinez ekartzeko ohitura 1947an amaitu zen. 1948. urtetik aurrera, berriz, ganadua kamioietan lekualdatzen da, kutxetan sartuta. Zezen ospakizun bereziren batean izan ezik, kutxetatik kanpora ateratzeko ekintza hori Osioko ukuiluetan egin izan da beti; normalean, abuztuaren 14an.

Iaz abuztuaren 13an egin zen, iluntzeko 20:30ean, zezen kamioia entzierro sarrerako atean jarrita. Lau idi atera ziren plazara; kutxak banan bana ireki eta zezenak plazaratzen hasi ziren, zortziak inolako arazorik gabe jaitsi ziren arte.

Behin zezenak plazan zirela eta hesiak itxita, Osioko ukuiluetarako entzierro txikia egin zen, ikusleen portaera ezin egokiagoa izan zelarik.

Sakako Markesaren ganadutegiko langileen lana, segurtasun arduradunena eta 20 bolondres baino gehiagorena ezin hobea izan zen, eta horrek eragina izan zuen jardueraren arrakasta zalantzarik gabekoan.

En los festejos taurinos celebrados en Deba el año 2017, hubo una interesante novedad que merece ser destacada: por primera vez, el desencajonamiento de los novillos adquiridos para las novilladas que se celebran en las fiestas de San Roque se realizó en la Plaza de Toros, desde donde, con un encierro sin participación de corredores, fueron trasladados a los corrales de Osio. Hubo una gran expectación, que se confirmó con la masiva asistencia de público que llenó tanto la plaza como el recorrido del encierro.

Como conocido, el traslado a pie de los novillos-toros desde Navarra a Deba, finalizó el año 1947. Desde el año 1948 el traslado de las reses pasó a realizarse en camiones en los que viajan encajonados. Excepto en alguna ocasión puntual para la celebración de algún festival taurino, los desencajonamientos se han realizado siempre en los corrales de Osio, normalmente el día 14 de agosto.

El desencajonamiento fue el día 13 de agosto a las 20:30 h., situándose el camión con los novillos en la puerta de entrada del encierro. Se sacaron cuatro bueyes a la plaza y se fueron abriendo uno a uno los cajones del camión, desarrollándose el desembarco de los ocho novillos sin ningún tipo de incidentes.

Una vez los toros en la plaza, se retiró el camión y con el vallado cerrado, se realizó el encierro hasta los corrales de Osio, destacando el gran comportamiento cívico del público.

La labor de los ganaderos de la ganadería del Marqués de Saka, de los responsables de la seguridad y de los más de 20 voluntarios fue excelente, lo que contribuyó al indudable éxito del acto.

16ko zezenketa

San Roke egunean, ohi bezala, zezenketa ospatu zen.

Andoni Goikoetxea izan zen presidente, Debak Madrilen duen enbaxadore gastronomikoa, eta oso ondo bete zuen lana. Presidentearen balkoian egon zen, era berean, **Lorenzo Fraile Martín** ganaduzalea.

Aurkezpen-paseoaren aurretik, megafoniaz iragarri bezala, Debako bandak pasodoblea jo zuen, **Jesus Urrutia** maisuak Orduñako **Ivan Fandiño** toreatzailearen omenez sortutakoa, zeina bi hilabete lehenago Air Sur L'Adour Frantziako plazan hil baitzen zezenak harrapatuta; ikusleek tente eta errespetu osoz entzun zuten hildako toreatzailearen omenaldi gisa.

Plaza ia beteta, Salamankako Puerto de San Lorenzo eta Ventana del Puerto ganadutegietako bina zezen toreatu ziren; suhar eta nobleak oro har, bigarrena izan ezik, zeina mantsoa eta zaila izan baitzen. Lehendabizikoa eta hirugarrena oso txalotuak izan ziren arrastaka ateratzerakoan.

Alfonso Ortizek, gorrimin eta urrez jantzita, belarria eta agurrak eskuratu zituen. **Juan José Villa "Villita"**k, urdin eta urrez, isiltasuna bietan.

Novillada del día 16


El día de San Roque, como es costumbre, se celebró la tradicional novillada.

Presidió el festejo **Andoni Goikoetxea**, embajador gastronómico de Deba en Madrid, que cumplió perfectamente su labor. En el balcón presidencial estuvo presente el ganadero **Lorenzo Fraile Martín**.

Antes del paseillo, desde el coso de la Plaza y después de ser anunciado oportunamente por megafonía, la banda de Deba interpretó el pasodoble que el maestro **Jesús Urrutia** compuso para el torero de Orduña **Iván Fandiño**, que dos meses antes fue cogido mortalmente en la plaza francesa de Air Sur L'Adour, que el público, como homenaje al torero fallecido, escuchó respetuosamente puesto en pie.

Con la plaza prácticamente llena, se lidiaron dos novillos de la ganadería salmantina del Puerto de San Lorenzo y dos de la Ventana del Puerto, bravos y nobles en general excepto el segundo que fue un novillo manso y difícil. El primero y el tercero fueron muy aplaudidos en el arrastre.

Alfonso Ortiz, de grana y oro, oreja y saludos. **Juan José Villa "Villita"**, azul y oro silencio en ambos.



Alfonso Ortiz, Madrilgo Tielmes herrikoa eta **Fundación “El Juli”** eskolako ikaslea, hainbat plaza eta zezen jaialditan arrakasta izatetik zetorren. Lehenengo zezenak joko handia eman zion eta ikusleei eskaini zien. Ondo toreatu zuen beronika erara eta muletarekin ofizioa duela erakutsi zuen, ondo toreatuz bi adarretatik; bereziki gustagarria izan zen natural egindako seriea. Hiltzeko lantzea ondo burutu bazuen ere, baxu samar geratu zitzaion ezpatakada; emandako belarria baino gehiago eskuratzeko aukera kendu zion horrek. Musika bandari eskainitako bigarrenean, goitik lagundutako pase interesgarri batzuekin hartu zuen zezena eta pare bat tanda eder egin zituen eskuinetik. Ezkerretik toreatzerakoan desarmatua geratu zen pare bat aldiz. Sastada, erdia eta deskabelloa behar izan zituen hiltzeko; txaloak jaso zituen. Inpresio ona eman zuen.

Juan José Villa “Villita”k, Madrilgo eskolakoak, pare zailena eduki zuen eta ezin izan zuen haiekin. Lehenengoa (mantso zail bat) ikusleei eskaini zien: ondo toreatu eta banderillak ondo sartu bazizkioten ere, tokirik aurkitu ezinda ibili zen; zezenak airean ibili zuen baina ondoriorik gabe. Oso gaizki hil zuen, ezpatarekin gehiegi luzatuz eta abisu bat jasoz. Arratsaldeko laugarrena suharra zen baina ez batera erraza. Prestu egon zen eta ezpatakadaz hil zuen, hiru aldiz zulatu eta gero. Jaialdia amaitutakoan medikuek arreta egin behar izan zioten ebaki txiki bat sendatzeko.

18ko zezenketa

Plazaren hiru laurdena baino gehiago. **Josetxo Mendizabal** Zestoako alkatea izan zen presidente, eta ondo aritu zen. **Lorenzo Fraile** ganaduzaleak errepikatu egin zuen presidentearen baloian.

Ventana del Puertoko lau zezen toreatu ziren; suharrak, joko ona eman zuten lehenengo hirurek. Laugarrena, ordea, mantso zaila izan zen, burukada gehiegi eman zituena. Bigarrena eta hirugarrena nabarmendu ziren: zezen oso onak, eraso luzeak egin zituztenak eta asko makurtu zirenak, hondarra bilduz.

Fernando Plazak, berde pistatxo eta urrez, isiltasuna eta esku-zartak bildu zituen. **Manuel Dioslegardek**, urdin eta urrez, plazari itzulia eman zion bietan.

Alfonso Ortiz, de la localidad madrileña de Tielmes y alumno de la **Escuela Fundación “El Juli”**, venía de triunfar en varias plazas y certámenes taurinos. En su primero, un novillo que dio mucho juego y que brindó al público, toreó bien a la verónica y, con la muleta mostró que tiene oficio toreando bien por los dos pitones, gustando especialmente una serie al natural. Aunque realizó bien la suerte de matar la estocada quedó baja, lo que le privó de un premio mayor a la oreja que le fue concedida. En el segundo, que brindó a la banda de música, recibió al novillo con unos interesantes ayudados por alto y dio un par de buenas tandas por la derecha. Toreando con la izquierda fue desarmado un par de veces. Mató de pinchazo, media y descabello, siendo aplaudido. Causó buena impresión.

Juan José Villa “Villita”, de la **Escuela de Madrid**, tuvo el lote más complicado y no pudo con los novillos. En su primero, que brindó al público, un manso difícil que fue bien lidiado y banderilleado, estuvo sin sitio y fue volteado aunque sin consecuencias. Mató muy mal eternizándose con la espada, escuchando un aviso. En el cuarto de la tarde, un novillo bravo pero nada fácil, estuvo en novillero y mató de estocada tras pinchar tres veces. Al finalizar el festejo fue atendido por los servicios médicos de un pequeño corte.

Novillada del día 18

Más de tres cuartos de Plaza. Presidió **Josetxo Mendizabal**, alcalde de Zestoia que estuvo bien. El ganadero **Lorenzo Fraile** repitió presencia en el balcón presidencial.

Se lidiaron cuatro novillos de la Ventana del Puerto, bravos y que dieron muy buen juego, excepto el cuarto, un manso difícil que cabeceó en exceso. Destacaron el segundo y tercero de la tarde que fueron muy buenos novillos, con largas embestidas, humillando mucho y rebañando la arena.

Fernando Plaza, de verde pistacho y oro, silencio y ovación. **Manuel Dioslegarde**, de azul y oro, vuelta en sus dos novillos.





Fernando Plaza, Aranjuezekoa, **Escuela Taurina “El Yiyo”**-ko ikaslea eta **Fernando José Plaza** banderilleroaren semea (haren kuadrillan izan zen aita). Furgonetan matxura bat izan zuten, ezin izan zuten zezenen bereizketan egon eta jaialdia hasi baino minutu gutxi lehenago heldu ziren. Bere lehenengo zezenean kapotearekin nabarmendu zen, beronika erara toreatuz. Muleta saioa ikusleei eskaini zien. Luze eta poliki toreatu zuen bi adarretatik; ezkerreko eskuarekin egindako toreo saioa nabarmentzekoa izan zen. Armarik gabe geratu zen pare bat aldiz. Gaizki hil zuen, bi sastakada, eroritako ezpata erdi bat eta deskabello bat behar izan zituen, trofeoren bat galduz horregatik. Bere bigarrenarekin, zezen ederra, oso saio ona egin zuen; ezkerreko eskuarekin egindako toreo saioarekin nabarmendu zen berriro eta hiltzera sartu aurretik egindako bernardinekin ere bai. Ez zen ondo aritu ezpatarekin hiltzera-koan: sastakada bat, sastakata sakon bat toki onean eta deskabello bat behar izan zituen.

Ciudad Rodrigoko **Manuel Diosleguarde**, **Salamankako eskolako** ikaslea. Proiektzio handiko nobilleroa eta eskola salamankarreko perlatzat hartua. Ospe handia zekarren aurretik, hainbat jaialdi eta zezen bolsin irabazita eta hainbat ate handi irekita zetorrelako. Ikusleei eskainitako lehenengo zezenarekin oso inpresio ona laga zuen, luze eta sakon toreatuz bi adarretatik eta manoletina eta molineteekin amaituz. Hiltzean huts egin zuen lehenengoan, zezenari harrera egiterakoan sastakada sakon bat eman eta deskabello bat. Itzulia egin zuen gutxiengoaren eskaera baten ondoren. Bere bigarrena eta arratsaldeko laugarrena zezen mantsoa izan zen, burua goian eta, zirt eta zart, batera eta bestera, ezustean mugitzen zuena. Toreatzailea, ordea, oso ondo aritu zen. Ondo kokatua, zezen zaila izanik ere, etorkizuna izan dezakeela erakutsi zuen. Abisua jaso zuen hiltzera sartu aurretik. Atzealdeko ezpatakada eta deskabello bidez hil zuen, sastakada bat eman ondoren. Gutxi batzuen eskaera. Beste itzuli bat egin zuen.

Sobresalientea **José Manuel Serrano** izan zen bi zezenketetan: gogotsu aritu zen egindako kiteetan.

Luis Mari Pastor izan zen bi zezenketetako aholkularia eta albaitaritzaren lanak **Isidro Aristiri** tokatu zitzaizkion. Ohikoa den bezala, Debako banda, zezen zaintzaileak eta aguziltzoa ondo aritu ziren.

Fernando Plaza, de Aranjuez, alumno de la **Escuela Taurina “El Yiyo”**, hijo del banderillero **Fernando José Plaza** que estuvo en la cuadrilla de su hijo. Por una avería en la furgoneta, no pudieron estar presentes en el apartado de los novillos y llegaron a la plaza pocos minutos antes del comienzo del festejo. En su primer novillo, destacó con el capote toreado a la verónica. La faena de muleta la brindó al público. Toreó largo y despacio por los dos pitones, destacando su toreo con la mano izquierda. Fue desarmado en un par de ocasiones. Mató mal, con dos pinchazos, una media desprendida y un descabello, perdiendo algún trofeo. En el segundo de su lote, un gran novillo, hizo una muy buena faena, volviendo a destacar su toreo con la mano izquierda y con las bernardinas que ejecutó antes de entrar a matar. No estuvo bien con la espada, matando al novillo con un pinchazo, un pinchazo hondo en buen sitio y un descabello.

Manuel Diosleguarde, de Ciudad Rodrigo y alumno de la **Escuela de Salamanca**. Un novillero con gran proyección y considerado como la perla de la escuela salmantina. Vino precedido de una gran fama, ya que había ganado certámenes, bolsines taurinos y había abierto varias puertas grandes. En su primer novillo, que brindó al público, dejó una muy buena impresión toreado largo y profundo por los dos pitones, finalizando con manoleteras y molinetes. Al matar falló en su primer intento y acabó con el novillo de un pinchazo hondo recibiendo un descabello. Dio la vuelta al ruedo tras una petición minoritaria. El segundo de su lote y cuarto de la tarde fue un novillo manso, que llevaba la cabeza muy alta y calamocheaba mucho. Sin embargo, el torero estuvo muy bien. Toreó bien colocado y, con un novillo difícil, demostró que puede tener futuro. Recibió un aviso antes de entrar a matar. Mató de estocada trasera y descabello, después de haber pinchado. Petición minoritaria. Dio otra vuelta al ruedo.

El Sobresaliente en las dos novilladas fue **José Manuel Serrano**, que estuvo voluntarioso en los quites que realizó.

Luis Mari Pastor fue el asesor taurino en ambas novilladas y las tareas de asesor veterinario correspondieron a **Isidro Aristi**. Como viene siendo habitual, bien la banda de Deba, los encargados de los toriles y el alguacilillo.